

BEZEROEN SEGMENTAZIOA

Enpresak merkatu osoa bi taldetan banatzen du: erosle potentzialak eta erosleak ez direnak. Enpresarentzat lehenengo taldea izango da helburua den merkatua.


Enpresa honek bezero gabe ezin izango luke funtzionatu eta horregatik bezero segmentazioa finkatu dugu. Gure bezero target nagusia turistek osatuko dute. Txirrindan ibiltzea gustoko dutenek, naiz gustoko ez dutenek gure bezero segmentazioaren parte izango dira. Hauek Hondarrribian zehar hainbat ibilbidetan ibiliko dira. Gure bezeroak bi taldetan banatuko ditugu. Lehena, mendiko ibilbideak egingo dituztenek osatuko dute. Hemen kokatuta dauden perstonak pertsona kirolariak dira, mendia eta natura gustoko dutenak. Normalean adin gaztekoak izango dira hauek eta maila ekonomiko guztietakoak. Bestalde Hondarribia bisitatzera datoztenak egongo dira. Hauen maila ekonomikoa ez da oso maila altua izan behar. Turistek osatuko dute, Hondarribia modu polit batean bisitatu nahi dutenak. Beste taldearekin alderatuta hauen adinak altuagoak izango dira eta bizitza modu lasaiagoa.



Bi taldeekin estrategia berdina erabiliko dugu. Hau da, marketing mix berdina naiz eta oferta ezberdinak izango diren. Beherapen hauek lortzeko gure eskakizunak bete beharko dira, adibidez: Famili ugaritsuak direnak edota gazte txarela erakusten dutenak.

Horrez gain, bi target ezberdinen nahiak asetzeko baliabide nahikoak izango ditugu, horregatik erantzun egokia emango diogu gure segmentuari. Gainera merkatu osora zuzendu beharrean gure bi targetentzat izango dugu lehentasuna.

Bi talde hauen irizpide geografikoak kasu honetan berdinak izango dira. Gehienak kanpotarrak edo turistak izango dira, horretarako gidak izango ditugu.



Irizpide sozioekonomikoak berriz ez dira oso garrantzitsuak izango nahiko merkea delako , gainera beherapen nahiko ditugu oraindik merkeagoa izateko.

Azkenik irizpide psikografikoak ditugu. Lehen taldekoak pertsona aktiboak izango dira, kirola gustuko dutenak. Bestalde bigarren taldekoek bizitza modu lasaiago bat izango dute.